



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/07/10) Hurrengo saioa: 2018/07/24	Mantangorri (Berria)	Udalekuei buruzko informazioa bidali zaie astekarian argitaratzeko	Noizbehinka informazioa bidaltzen jarraitu.
	Heldu autonomoen ariketa psikosozialaren eskaintza	Helduekin eginiko bileraren ostean, astean behin egitea ondo deritzote, ordubeteko saio gidatuan (15:30 - 16:30). Tokia berriz udal lokalean eta Zelaiondo elkartearen txandaturaz egitea proposatzen da.	Lahar elkargoarekin hilaren 27an elkartzeko zita egin dugu kurtso hau gidatzeko. Ekimen honetan koordinatzeko eta laguntzeko herrian lan eskaintza bat luzatzea pentsatu da.
	Herrian markaturiko ibilbideak	Aisialdian ibiltzeko herrian zein ibilbide markatu daitezkeenaren lehen hausnarketa egin da.	Ibilbideen proposamenak ekarri.
	Pilates-Zumba	Izena eman dutenekin bilera egingo da ostegunean Zerkiko monitoreak garaiz erreserbatzeko. Zumbarekin interesatuak daudenak arratsaldeko 19.30tan eta Pilatesekoekin 20:00tan.	Ostegunean, hilak 26an 19:30etan, erabakiko dira asteko ordu eta egunak
	Ibilbideak: deialdi berria	Osasun Saitetik deialdi berri bat atera da udalek ariketa fisikoa suspertzeko eta ibilbide inklusiboak hornitzeko. Hori dela eta Alegia-Uribar bide berdea asfaltatu ondoren beste eserleku, iturri e.a koka daitezke irikusiboa izateko. Baita S Lorentzora bidean ere	Abuztuaren 3an epea bukatzen denez, abuztuaren 1ean proiektua finkatzeko hitzordua zehaztu da
	Alegiako bileraren deialdia	Uztailaren 29an izango den batzarrean aztertuko diren gai-ordena zehaztu da eta deialdia banatzeko moduan bideberdea, bulebarizazio aukerak, parkean elementu berriak, ariketa psiko-sozialaren inguruko zehaztapenak,...	Batzarrean proposatuko den talde dinamika ostiralean zehaztuko da



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 07/17) Hurrengo saioa: 2018/09/11)	Heldu autonomoen ariketa psikosozialaren eskaintza	Ekimen honetan koordinatzeko eta laguntzeko herrian lan eskaintza bat luzatzeko proposamena jorratu da eta jakinarazpena prestatu da.	Lahar enpresarekin elkartu ondoren irailaren 18an hasiko da eta Gabonak arte iraungo du lehen froga gisa.
	Ikastaroen eskaintza	- Kirol eskaintzari erantzuteko epea luzatzea eta gogorarazteko watsappez oharra bidaltzea proposatu da. - Beste ikastaroen eskaintza irailean egitea erabaki da.	- Kirol eskaintzen erantzunen arabera, Zerki enpresarekin monitore kopurua adostu. - Irailean gainontzeko ikastaroen eskaintza bidali.
	Irudi baimena	Irudia erabiltzearen eskubidea norberarena denez, irudi hori argazkietan, bideoetan, ... erabili ahal izateko baimena eskatzea adostu da.	- Oharra prestatu
	Informazioa eta ibilbideak zehazten dituzten panelak herrian	- Berriazko informazioa duten 7 panel gune hauetan jarriko dira: Itsason 2 (herrikoa+elizakoa), Alegian, Kizkitzan, San Lorentzon, Mandubizelaian eta Itsasoerrotan (Matximentan) -Bi zirkuitu zirkular zehaztu dira, bide bakoitzean interesgune azpimarragarrienak nabarmenduz eta joan-etorrikoak 3	- Panelaren proposamen bat jorratu eta bertan idatzi beharreko testuak adostu gehi QR kodeak ezarri. Testuak hainbat hizkuntzetan adierazi. - Ibilbide bakoitzeko interesguneak zehaztu, ezaugarri jakin batekin lotu eta ibilbide didaktikoak proposatu.
	Alegiko frontoiaren ordenantzak	Alegiko frontoian argia pizteko makina jarri denez, ordenantzetan zegoen testua aldatu behar izan da.	Testua paperean izan ordez, oinarri sendoago batean jartzea, eguzkiaren argiak hondatu ez dezan.

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/07/18)	Itsasoko udaletxeko proiektua	Kanpoaldea eta sarrera egokitzeko obraren jakinarazpena eskegi da Kontratazio publikoetarako Jaurlaritzaren atarian	Abuztuaren 1ean Osoko Bilkuran irekiko dira jasotako eskaintzak



ITSASOKO

UDALA

(GIPUZKOA)

Hurrengo saioa: 2018/09/....)	Alegiako bide berdearen desjabetzeak	Topografoak neurketak egingo ditu partzela bakoitzari itxituraraino zenbat kendu zaion jakiteko eta desjabetzeak bukatzeko azalera horien arabera prestatuko dira kontratuak jabe bakoitzarekin.	Epelde errekatik Uribar aldera falta diren itxiturak ere egingo dira
	Udal langilearen lanak eta orduak	Orduak gutxitzeko dauden aukera desberdinak lantzeari jarraituko zaio: aldi baterako kontratazio berriren bat, traktorearekin baserri-bideak desbrozatzea Nekalderekin egitea e.a	Lan posibleak zerrendatzea
	Mandubiako estolderia	Astigarreta eta Garingo ur-zikinak biltzeko proiektua martxan dela-eta, Mandubiako estolderia bertara eransteko aukeraz galdetu da Ur kontsorzioan. Aldundiarekin 2021 arte hitzartutako proiektuan ez da sartu Mandubiakoa. Hala ere egon liteke egiteko aukeraren bat, ejekuzioan bajak egonez gero, 2021erako. Hala ez balitz, hurrengo hitzarmenean sartuko litzateke.	Mandubiarrei jakinaraztea